Erref. kodea: LAF-209-090

Izenburua: Jean Etxepareren (1877-1935) inguruko ikerketa

Agrandir
(si possible)

Jean Etchepare Jaun mirikua
(1877 – 1935)

AINTZIN - SOLAS

JEAN ETCHEPARE

Jaun mirikua (1877-1935)

Buruchka hauien egile miresgarria hainitzek ezagutu eta maitatu dute. Bainan urtheak badoatzi, eta badut beldurra, galdu berria dugun gerla hunek ezin handiagoko zilho bat idekiko duen ieħengo eskualtzaleen eta sortu-beharren artean. Bakea jiteareкin, eskuarari lotuko direnek gogotik hartuko dute liburu balios eta choragarri hau, eta jakin nahiko dukete nor zen Jean Etchepare mirikua.

Heientzat laburzki erran dezagun bada dakigun pochitik zerbait.

Huna hasteko haren sortze eta bathaioaren berri :

Don Joaquin Balaña desservant de la Succursale de Ajo Tugu et Monsalvo, province et évêché de Buenos-Ayres, certifie que le quatorze Mars de l'année du Seigneur mil huit cent soixante-dix-huit, le soussigné desservant a solennellement baptisé et a oint de l'huile et du Saint Chrême un enfant du sexe masculin auquel on a donné le prénom de Jean ; il est né le trente un Octobre de l'année mil huit cent soixante-dix-sept, à onze heures du matin, enfant légitime de Jean Etchepare né en France, âgé de trente-cinq ans et de dame Gratienne Bidegorry, née en France, âgée de vingt-trois ans, domiciliés à Marchiquita. Parrain : D. Juan Dambouriana, né en Espagne, âgé de vingt-un ans, demeurant à Marchiquita ; Marraine

Horra zer irakur ditakeen, españoletik frantseserat legez itzulirik, Lekorneko herri-etchean.

Aitaren etche-ondoa Dona-Isti-Etcheparea zen; egoitza chaharraren izena behar zuen Oztibarretik urrun ereman eta barreatu. Sor-lekuari ez zion behin ere Joanesek uko egin: hango eskuara zuen bethi mintzatzen: «umihia etzakozun bestetara lerratzen». Bertzalde, ezin ahantz Michel Garicoits Ibarreko saindua haurrean ikhusirik; ez bazion ere meza lagundu aldi bat edo bertze, bere herritar famatuari.

Zer nahi den, Etchepareko semea Amerikatara joan zen zonbait auzo-ahaidekin, eta Argentinan lanak ontsatu zuen: han berean ezkondu zen andere eskualdun gazte batekin: lehenbiziko haurra, hemen aiphatzen dugun Jean delakoa izan zuten: bertze sei jin behar zaizkoten gerochago: Pierre, Gracianne, Marie, Josephine, Emile eta Julie; bi azken hauk anei-arreba biritchiak.

1883-an, Marchiquita utzirik, itsasoa iragan zuten; eta Lekorne-Erlandenean kokatu ziren. Orduan sei urthe zituen mattiko gehienak. Bainan Amerikétako lur-zeru bereziak begietarik ezin barnago sartu zitzaizkon jadanik eta hango airea bera beretua zaukan. Erraiten ere zuen: «Ez da deus garbiagorik ene buruan. Askotan banago ere kokatzen duenetz bertzerik. Gogoa bethea daukat orduko zerez. O haurreko egun berriz jinen etzaretenak, zuetarik dut bihotzean nere bizi aphurrak eman daukedan gozorik hoberena!»

Halere laster laketu zen bere herri berrian: haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia.

lehenbiziko errienta Pierre Detchessarry izan zuen, bainan J.-L. Dibar-ek utzi ziozkan irakaspenik eta orhoitzapenik sarkorrenak Lekorneko eskolan: « Les leçons que vous m'avez données étant enfant sont les plus présentes à ma mémoire... » zion aithortzen ichtudiant gazteak hogoi-ta-lau urthetan.

Errientarekin batean jaun bikarioa ere ari zen egin-ahala, gizonttoa zerbaitetarat hel-arazi nahiz: damurik bedera alde ari baitzizen fedezko gauzetan, eta haurra, bereak golkoan, ichil-ichila ohartzen. Halere hastapen hartan biziki atchikia zitzaion Etchegaray aphezari; eta hunek ere atchikitzen zion, frango atzarria, langilea eta prestua baitzaukan: lehenbiziko komunionea bederatzi urthetan egin-arazi zion, orhoitzapen gisa emaiten ziolarik "saindu" bat hitz hauiekin: « Précieux souvenir pour celui qui reste toujours fidèle à la loi divine. » 1887-ko maiatzaren 15-ean egin zuen Jean-ek urhats handi hori eta geroztik « orhoitzapen baliosa » bethi begiratu zuen arthoski, bere biziko ordu gochoenak gogoratzen ziozkala.

Handik aintzina bi urthe ereman zituen jaun bikarioarekin latin ikhasten. Bainan begi-beharriak ez zituen bethi latinean. Gerochago kondatu behar zituen urthe hetako orhoitzapen maitagarrienak: kabalak zonbatetaraino agradatzen zitzaizkon; nola miretsia zagoen Arrokiko Kattin, « pobren ama » deitzen zuten etchetiarsa onari; zoin polliki kantatzen zuen aitak supazter-chokoan; zer afal-ondo alegera bezain gochoak zeramatzaten elgarrekin josteta anei-arrebek. Liburu huntan

aurkituko dituztne chehetasun horiek oro. Ez dauku ere gorde ttipian Aguerreko Nausiaren ikhusteak itze-egile jartzeko gogoa eman ziola, eta hala-hala Etchegaray aphezaren ikhusteak apheztekoa. Maiz gerthatzen dena, ez zuen ofizio bata ez bertzea ~~[illegible]~~ hartu, bainan hirugarren bat: mirikuntza.

Larresohoko Semenarioan 1889-ko urrian sartu zen eta laugarrenetik hasi, jaun bikarioari esker. Lehen urthean bi sari ukan zituen: lanekoa eta anglesekoa; bigarren urthean, laneko saria eta hiru aiphamen; hirugarren urthean, bi sari eta lau aiphamen; laugarren urthean, ~~bortz~~ ~~se~~ ~~lau~~ bortz sari eta sei ~~[illegible]~~ aiphamen... Chehetasun horiek erakusterat emaiten dute zer langile zaila zitaken eta aztaparkaria; bethi ari eta bethi goiti, arno ona bezala bethi ontuz...: Jakitate guzietarat aise jarri zen, bainan oroz gainetik mintzaire arrotzetarat, izan zadien latina ala anglesa. Hori bethikoa izanen du, eta bere bi ondar urthetan ez ditake erran zoin ontsa ikhasi zuen alemana, lehenchago, hogoita-hamar urthetan, española hartu zuen bezala.

Haren eskola-emailek eta lagunek gauza bera diote, hiru amodio baizik ez zituela Larresohon: lana, pilota eta othoitza. Hiruneri osoki emana zen eta jarraikia, eta ez « norat haize, harat aise » ibiltzale hetarik. Bere buruaren jabe egon nahi zen eta bere aburuen nausi. Halako jite batek badu alde onik, gizona ez baitu « bethi bertzen meneko » ezartzen. Baduke tcharrik ere, bertzen laguntza ez baitio aski preza-raztzen.

Zer nahi den, biziki ontsa ikhusia zen eta nehor ez zen harritu 1893-an « bakalorea »-ko

lehen haitada gainez-gain iragan zuelarik, gazte-gaztea, hamasei urthetarat gabe, hiru hilabetheren barkamenduarekin. Berak ere gora zaizkan Larresohoko irakasleak, bereziki Lille, Abbadie, Adema, Hiriart-Urruty, Larricart eta Larralde. Gerochago denak betan goretsiko ditu „ eskualde guziko jaunik argituenak " zirela, "jainkotiar kartsuak, bainan deus hertsitasunik gabekoak.„ Bederazka ere nola ez ditu laudatu ?

« Aphez bat, osoki apeza zena ; – gizon bat, lurrak gutisko hazten duen bezalakoetarik ; – eskualdun laborari-seme bat, Eskual-herria bere itzalaz hartu duena, laborantza jakintsuen argiez bezanbat bere esku-lanaz goratuz eta maitaraziz ; – idazle bat, eskuara zaharraren mami gozoa hamabortz ~~[illegible]~~ bat urthez <u>Eskualdunean</u> amultsuki ezagutarazi daukuna ; – haurren, aitamen, apez lagunen buruzagi zuzen, zuhur bat ; aita on bat jende beharrentzat : horra nor eta nolakoa zen Arnaud Abbadie !„

Horra, bertzeak bertze, zonbait hitz Abbadie zenaz. <u>Eskualdunean</u> ez zen athertzen hartaz hasiz geroz : 1929-ko udan lerro-alde ederrik ager-arazi du haren ohoretan.

Hiriart-Urruty hurbilago zitzaion, mintza-errechago, eta ondoko urthetan hunek bildu zuen eskuarazko lanetarat, ~~[illegible]~~ adichkide eta lankide hartzen zuelarik. Miretsia zagoen mirikua aphez onaren gogo zalhoin eta punttako erneari.

Bainan, nahiz ez duen behin ere bere liburu eta irakurgaietan aiphatu, Larralde zenaz egona da, azken egunetaraino, orhoituenik : aphez aditu eta bihotzduna zen, errotik bere eginbideri emana, gazteen arimez aise griñatua. Goizik ohartu zitzaion Etchepare biphilari eta seme bat

bezala maitatu zuen, harekin bazter ikhus-keta noizean-behin ibiltzerainokoan, lan-arte-egun batzuez.

Beraz atseginekin sartu zen berriz ere Larresohon 1893-ko urrian, filosofiaren ikasteko.

Bizkitartean eskola-urthe berriak bizi guzikotz behar zion arima zaurtu. Otso gazte baten gosearekin ausikian lotu zitzaion filosofiari; ilhunbe guziak argituren zituelako lilluararekin. Choko batzu ba frango polliki argitu ziozkan, hala nola zer gisaz gauzak heltzen zaizkun gogorat, bakhar zonbait chuchen-chuchena sentsuek bildurik, bertzeak lekukoek erranik. Eremu handiak aldiz oraino goibel gelditzen zaizkon, bereziki erlisioneko irakaspenak: Michterio horiek chilatu nahiko zituen, adimenduaren gozagarri, eta ezin! Orduan burutik iragan zitzaion gau batez, behar bada bere fedea buru-berokeriaz bertze deus ez zela; menturaz, aitetametarik has eta eskola-emailetaraino, (haur-demborako errient batek salbu), denek hantu ziotela gogoa sineste huts bezain alferrez; onez-onean segurki, bainan halere... Iduripen etsigarri horrek durduzatua, ez zakien norat itzul. Alde batetik othoitza maite, erlisionea maite, heieri uko ez egin nahi, ez ahal zirelakoan oro amets; eta bertzalde arima-zolan halako dei ilhun ichil bat, bethi zirikan ari zitzaiona: « ez haurkeriarik, Joanes, othoitz eginez hihaurk enganatzen duk heure burua! » Gaicho muthikoa Ama Birjinari hel-ka ari zen ichtant bat eta berriz ere dudak ahoa hesten ~~[illegible]~~ zion.

Asaldu hoien ondotik filosofo gazteak bakea, loa eta jana galdurik ere, ez da harritzeko : herratua bezala zen, egunetik egunerat hitsago eta mehatsago. Lagun eta eskola-emaile gehienak ez zitzaizkon hunbat ohartu ; ohartu zirenek ere lanaren gain emaiten bide zuten haren akhidura ; bainan Larralde jaun aphezak, (bihotz kartsu baten begia bezalakorik ez baita), laster asmatu zuen bazela nunbait bertze zerbait...

Buruz-buru hartu zuen bada, arrangurak erran zitzon : muthikoak kondatu zion bere ezinbertzea, eta eskolemaile onak arthamendatu zion ez kasurik egiteko holako tentamendueri ; saindu handienek ere bazituztela ; bertzalde liburueri sobera emana zela, jakitatean ez zela barnegi sartu behar ; hobe zuela Eliza Ama sainduari bi begiak hetsirik jarraikitzea, nahi bazuen segurik bere lehenagoko bake gozo hura berriz bildu. Gutiz gehieneri aski zaizkoten aholku edo kontseilu horiek, ez zioten Etchepare beratzari bihotza sumindu baizik : « Zer ! aphezak berak jakitatearen beldur dira bada ? Argi galdez doakotenari begiak heskik eta kito ? » Larralde adichkideari ez zion hitzik erran holakorik, bainan bereak golkoan urrundu zitzaion asko denborarentzat.

Egungo egunean duda batzuek setiatzen duten girichtinoari, ez diogu erraiten itsu dadin : galdegiten diogu pocholu duen koropiloa ager diezagun, ahalaz desegiteko ; ez badu ager dezakenik deus, ez badu itchurapenik ere halako edo hulako egia baten kontra, ez dakioke argirik eman ; iduripen huts edo sentimendu hutsetik heldu den duda, ihes eginez baizik ez ditake suntsi, edo sentimenduak

zerbait gisaz berrituz. Erraiten daukutenean : « Jauna, zure arrazoinak biziki ontsa emanak zaizkit, ez diote nere adimenduak fitsik ihardesten ahal, bainan zer nahuzu, nihaurk ere ez dakidalarik zertako, barneak ez dauzkit onhartzen », — ez dut uste adimenduari laido egiten diogun, "kasurik ez emaiteko" ihardokitzen dugularik. Larralde aphezari ez bide zitzaion iduritu sendimenduaz bertzerik bazitakela hunkiturik bere adichkide gaztea baithan.

Etchepare-k lanean ereman zuen halere bere Larresohoko ~~azken~~ ondar urthea, pilotari ere begiratzen ziolarik bere atchikimendua. Bachelier iragan zen, eta etcherat joaiteko ponduan Larraldek bere azken konseiluak eman ziozkan luzeki, Jesu-Kristoren imitazionea bertzalde, eta adiorik hunkigarrienak izan zituzten.

1894-ko hazaroan Bordalerat joan zen mirikuntzaren ikhasterat ; bainan mirikuntza ez zitzaion aski : orotarat nahi zuen hedatu, gogo-bihotzak aberastu ~~nahi~~ beharrez, denetarik (jasta bederen) baitezpadako zitzaiola ; Alemaniako zeretarat bereziki ekharria zen : Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen, bero-beroa, ez baitzuen beharragorik ! Anartean, noizetik noizerat hitz bat igortzen zion Larralde aphezari ; ~~Société~~ Conférence de St Vincent de Paul delakoan sarturik, bazabilan behardunen laguntzerat, girichtino gisa ; othoitzari jarraikitzen zitzaion ; bainan, emeki-emeki, zer nahi bihotz-minen artetik, etsimendua gogoan, fedearen haria ari zitzaion mehatzen eta mehatzen, azkenean osoki pikatua zela iduritzerainokoan. Ordutik Larraldekilako haria ere pikatu zuen

berak, salbu Jesu-Kristoren imitazionea ezin utzizko liburu baten pare begiratzen eta irakurtzen zuela. Ordutik sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko ilhundura hits eta eztia.

Gudu izigarri hoien artetik mirikutzen ari zen aitzina; eta doktor izaiteko liburu bat behar baitzuen egin, Eskual-herriari eskatu zion gaia : Quelques remarques sur le Joueur de Pelote. Horra lanaren izena : pilotariaren gorphutz-aldarteaz eta eritasun bereziez chehetasun ederrik emaiten du.

Lehenik bi hitz erraiten ditu pilotaren on-gaitzez eta hartan [illegible]artzeko moldez.

Gero joko horrek dituen hamahiru ondorio ikhertzen ditu : 1° nola besoaren harat-hunatek eskuineko sorbalda bertzelakatzen duten eta zer gibelondo heldu zaion bulhar-kaiola edo sahets-hezurreria guziari ; – 2° nundik errebestariek besoa galtzen duten, aitzinerat eta airetik ezin joa baitukete ; – 3° zergatik pilotariari usu bizkar-hezurra doi-doi bat ezker zeihartzen zaion kampo-alderat, eskuineko sorbalda aphalduz eta chutik dagolarik, gorphutza eskuineko zangoaren gainerat berma-raziz ; – 4° nola pilotak bulhar-gain eta beso-ginharrak hazten dituen larrupetik lodigune batzu agertzerainokoan ; – 5° nola luzara sorbalda-ginharrak azkarki makurtzen diren eta pozoinak akhitzetik sortzen ; – 6° zer aldakuntza ederrak gerthatzen zaizkon besoari, hala edo hula, laster ala emeki higi-arau ; – 7° pilotarien esku-mamiko katcho bereziak ; – 8° erhi ttipiaren makhurdura ; – 9° esku eskuinaren loditzea ; – 10° esku-bizkarrean erhi handiaren erho-buruñoa kampo-alderat pochi bat atheratzea ; – 11° itzea ; –

12° partida demboran eskua nola den hantzen eta kasik sorhaiotzen ; - 13° nola pilotak hotzaren lagun esku-mandoak eta odol-gaichtoak sortzen dituen.

Hots, lan ederra egin zuen hor Etchepare jaun mirikuak. Han-hemenka achalegi zitzaiola aitor zuen eta zathi bat edo bertze nahiko zuen, astia ukan balu, barnagotik hartu eta argitu. Damurik ezin baitzuen egin. Agian miriku-gai zonbaitek nahiko dute anai gehienaren urhatseri jarraiki. Lahontan gazteak « pathologie normale du pilotari » ager-arazi zuen, bainan bada oraino nun iker eta zer erran pilotariaren gorphutzaz. Zer nahi gisaz Etchepare jauna gelditukо da denen hots-emaile eta buruzagi.

Liburuaren aitzin-solasean ezin ederkiago goresten ditu ez bakharrik Eskual-herriko ohidura eta mintzaire zaharrak, bainan hala-hala erlisionea. Zergatik othe ? Batere aiphatu gabe uzten ahal zuen nehori laidorik egin gabe, gaiak ez zionaz geroz galdegiten alde ala kontra agertzea. Ene gostuko, fedea ahuldu zitzaion, goibeldu, ikharatu, bainan ez behinere suntsitu : erlisioneari ez zion bihotzak nehundik uko egiten ahal.

1901-ean lau miriku-nausiren aitzinean agertu zuen bere lana. Hek ziren : Piéchaud, buruzagia, Morache, Hobbs eta Regis. Liburua onhartu zioten eta gain-gainetik laudatu. Geroztik mirikutua zen. Hogoi-ta-lau urthe zituen.

Lehornen iragan zituen lau urthe eta Elosu mirikuak Aldudeerat joan-arazi zuen. Hogoi bat urthe han egoitekoa zen. Laster hangotu zen, konseiluan hartu zuten eta lau urthez achuantgoa ere ibili zuen (1921-1925).

Ez dakigu ea Bordaleko bere lanen artetik eskuarari oharty zenetz; bainan, bethi, Lekornen amodioz maitatu zuen, eta 1902-tik aitzina *Eskualdunean* hasi zen bere lerro-alde goresgarrien ager-arazten. Hiriart-Urruty apheza zuen, haste hartan, buruzagi eta gidari. Ez zen jaun hau punttalakurlo hetarik; zetabea larria bazerabilkan, eta berak segur erranen ez zuen atheraldi bat baino gehiago badu bere gazetan jasanik. Baitezpadako zitzaizkon gauzetan, jo azkarki: gainerateko gauzetan, odol gaichtorik egin gabe, onhar batzuen nola bertzen aburuak. Haatik frango kilika zen eskuarari buruz. *Eskualdunean* eskuara nahi zuen, ez erdi-kaskoin erdi-eskuara, zonbaiti biziki eder zaioten mintzaire hartarik. Eskual-hitzak, eskual-itzuliak, eskual-usaina: hirurak nahi zituen elgarrekin, ala deus-ez. Lankide gazte bat heldu zitzaiolarik, laguntzen zuen lehen urhatsetan: lerro-aldia gazte horrek igorri bezain sarri, eskerrak ziozkan bero-beroa; bainan hemendik labur, handik luza, hantchet berriz hitz-ordain bat ezar, lan guzia bertzelakatzen zion, erakusten ziola emeki emeki noiz zer nola erran.

Etchepare jauna laster jarri zen eskuara garbiari; hainitzak ere badaude ez othe zuenetz azkenean garbiegi. Gure gostuko, 1914-eko gerla arte, eskuara tink eta garbi bazerabilan, ez batere garbiegi. Askori zail iduriturik ere, ez gira harritzen. Alabainan eskualdun irakurle gehien-gehienek ez dugu eskuaraz erraiten egun ~~guzti~~ guzietako zurruburru arruntez bertzerik deus; eta gai hoitaz goragoko zenbait aurkitzen dugun ber, eskuaraz aphaindurik, — berehala arrotz-aire ez balinbazaiku ere, gutiz gehienetan nekhos eta bortcha-kara zaiku. Arropa berriak jasan-gaitz ditugun bezala, hots!

Etchepare Jaunaren gaiak ez ziren nola nahikoak. Nehor gutik ukitua edo nehork ez aipatu gauzetarat biziki lerrakorra zen.

Abbadie zenak ez zuen lur-lana bakharrik berritu Eskualduna-ren bidez; eskuara ere norapeit hedatu eta zart-arazi zuen, gauza berrieri uztar zadin zaharreri bezain ontsa.

Hala-hala gure mirikuak bertze jakitate guzietarat nahiko zuen eskuara hel-arazi. Hortara bermatu da oldez eta moldez. Erresumen arteko gora-behera, Frantzia-barneko politika, diruaren gobernatze, jakintsunen asmu berri, etcheko osasun eta ontsa izanaren aldeko konseilu, Eskual-Herriko mintzaire-ohiduraz zer-nahi oharpen, noizbait norbait izan direnen berri, haren punttakoak zer ez dauku hainbertze urthez begien aintzinerat eman?

Laster ohartu ziren baztarretan, bazela sorturik izkiriatzaile edo idazlari bat gaitza, hedadura handiko bezain hizkuntza gurbil, chuchen eta aberatsekoa. Nun nor zitakeen ez zuten aise chilatu; bainan, azkenean jakiten ez denik ez baita, aho-mihitan kurritu zuen Aldudako Jaun mirikuaren famak. Adichkideak ari zitzaizkon: segur ederki zela, nehork ez bezalako gaiak ezin hobeki argitu zituela; bainan Eskualduna iragankorra izaki-eta, zerbait bazagonik egitekotz, liburutan ezarri behar zituela bere lerro-aldė hautuenak: liburuak hau ere bazukeen onik, kazetak ezin onhartuak jasanen zituzkela.

Miriku gazteak sinetsi zituen aholku horiek oro eta 1910-ean ager-arazi zuen liburu bat, Buruchkak.

Egia erran, nor harritu ? Adichkide eta ahaide gehienak harritu ! Liburua hor zuten, bapho eta eder, bainan ezin onhetsizko bi kapitulu hitsekin : batean, aphezen eskoleri ezin aiherrago zagon, baizik-eta erlisionea a[illegible]na ilhunbe dela eta egiaren gordatzale ; bertzean, ausartzia guziak bilduak zauzkan, itsusienak barne, amodio garbia eta bertze edozoin, berdin haizu emaite-rainokuan.

Ahaide-adichkidek, bichtan da, beltzuri egin zioten. Ez zituela bada arima ahul edo minberak nahasi edo zaurtu behar, miriku gazteak etchen bahitu zuen bere liburu ozarra, nehori bakhar bat saldu gabe. Haatik adin baretako eskualtzale batek doi-aiphatzen bazion, hitz pollit batekin zart ! emanen zion present.

Liburu hori, ditaken eskuararik garbienean egina delakotz, nahi izan dugu salbatu : bi kapitulu dohakabez arindurik eta hitz dorphechko bakhar batez, zen bezala-bezala agertzen dugu.

Anartean Eskualduna ez zuen utzia : ichil-ichila bere lanari zagon. Pierre Etchepare bere anai aphezarekin ager-arazten ere zuen urthe guziez Eskualdun laborariaren almanaka : hamar urthez jarraiki zaizko biak sail horri, 1914-eko yerla phiztu artio. Almanaka hori, Etcheverry Uztaritzeko serora beltchen omonier chahar zenak abiatua zuen 1848-an. Eskualduna sortu zelarik, almanaka bat atheratu zuen harek ere. Bi almanaka churi baziren bada denbora batez, ezkertiarrek noizean behin hirugarren bat — hau gorrasta — argitaratzen zutelarik ; 1914-etik aitzina bi churiek bat egin zuten Eskualdunaren itzalpean, eta gure mirikuak bururaino lagundu zuen bere argiez eta bere luma choragarriaz.

Yerla jin zenean, soldado joan zen, eta bere egintbidea ontsa baino hobeki bethe zuen.

Ez dugu bere harat-hunatetan segituko. Bainan ez dugu nehundik ere agertu gabe uzten ahal, irabazi zuen aiphamen ederra :

6e CORPS D'ARMEE
ETAT MAJOR
1er Bureau
n° 1218 - R.
5281

Au Q. G. le 16 Juillet 1916

Extrait de l'ORDRE DU CORPS D'ARMEE
N° 175

Le GENERAL COMMANDANT le 6e CORPS d'ARMEE cite à l'ordre du CORPS D'ARMEE :

Médecin-Aide-Major de 1° Classe ETCHEPARE, Jean, du 172e Régiment d'Infanterie :

« Du 27 Juin au 4 Juillet 1916, a fait preuve du plus entier dévouement en prodiguant ses soins aux blessés, sous de violents bombardements. — Désigné, quelques jours avant, pour passer dans une ambulance de l'arrière, a demandé l'annulation de cette mutation, en faisant valoir qu'il ne voulait pas quitter son Régiment à la veille du danger. »

Général
Signé : PAULINIER

Pour Ampliation
le Chef d'Etat-Major
Signé : Colin
253e BRIGADE
Etat Major
n° 5302

Extrait conforme notifié au Colonel Cmt. le 172° R. I.
le 19 Juillet 1916
Le colonel Commandant la 253e Brigade
P. O. l'Officier d'Etat-Major
(sceau de la Brigade)

- - - - - - - - - - - - - - -

Lagun batzuek nahiko zuten « medaila » ere eman ziozoten, eta harrituak zauden zertako bada, ez zuen berak galdea egiten behar zen tokirat. Begien aitzinean badut letra bat, mirikua adichkide batek igortzen ziona Trouville-etik : « Dans la vie militaire

les modestes deviennent aisément des sacrifiés. A votre place je ferais valoir ... » etc. Bainan aiphamena aski zitzaion: gerla bethean eginbideaz haratchago joanik ere, ez zuen uste espantuarenik bazitakeela.

Gerla horrek jats-aldi bat ona eman zioten lehenagoko duda gehieneri. Erlisione-gizoneri zaukan aiherkunde chaharra urtu zitzaion. Baigorri-eskualdeko gerlari ohiek lehen aldikotz egin zuten bilkuran, Etchepare jaun mirikua mintzarazi zuten, Aldudeko bestan. Huna zer irakur ditaken orduan egin zuen hitzaldi ederrean: « Erlisionezko sineste guzien arabera, guduan fede onez erori gizonek baitaukate Jainkoa baithan izaite bat berezia, nolako begitarte arraiarekin, ez daguke behatzen egun, nunbaitik, arras hurbiletik orobat, Balleko nausi Jean Baptiste zenak... » Urrunago, Aldudeko hilak aipatzen zituelarik, erraiten zuen: « Bagintuen aitzin hartan sei apez, eta apez-gei bat. Biga hilak izan dira ... Frantses idazle famatu batek izkiriatu izan ditu hitz hok: « Beren eginbidea bihotz garbi batekin hertsiki bethetzen dutelarik, ez da hiru gizon baizik munduan: apeza, neurthitzalea eta soldadoa « Il n'y a que trois hommes au monde: le prêtre, le poete, le soldat » Hiru gizon horiek dutelakotz ezen, gozorik gutiena lur hunen gainean, horiek dituztelakotz bihotzmin handienak jasaiten, hoitaz dutelakotz gutienik urrikalmendu mundutarrak. Eta bizkitartean nehork ez dutelakotz jendiaren barnea, jendiaren gogo mina, hiru gizon hoiek bezala inharrosten erroraino!
Bainan zer erran zuken delako idazleak, larru beraren barnean ikusi ukan balitu, gerla huntan bezala, hiru gizon hoik, apeza, neurthitzalea eta soldadoa[1], edo bederen biga, nola agertu baitira

---

(1) Burucoa-z mintzatu nahi zuen, jeinu berezi bat bazuen hunek erdaraz segurik hoblan artzeko: zonbait ager-arazi zituzten Bulletin Religieux delakoan.

Aldudetik, bakharra orozbat soldado eta apez! »

Ordutik iraganchea zukeen gure mirikuak gerla aintzineko bere bihotz-erredura eta jazar-gogoa. Noizean behin lanhoak jinen zaizko berriz ere gainerat, chimistak ere, ihurtzuri-eskainka; bainan bethi gochoago, bethi ederrago, bethi chuchenago eta azkenean egiago agerturen zaizko fedearen argi bereziak. Ezkondurik, Kambon jarriko den egunetik, bertze gizon bat dateke: harekin guhaur askotan mintzatu gira, bai haurren altchatzeaz, bai jakitate hutsaren hedaduraz, bai Alemaniako filosofo goibeltsuez, bai girichtino garbiaren alegrantziaz; onez-onean mintzatu gira, gizonez-gizon, gibeleko bortarik gabe: aithor dut ez ginela bethi adoch, frangotan bakotcha gure hartan ginaudela kantitu gabe; bainan erran behar dut maiz eta ardura hitz bereko gerthatzen ginela, bedera bide eginik ere. Orhoit niz saindutasunaz zaukan solasaz: haren gostuko, gure sainduen kharra ez zen bakharrik nahikunde harrigarri baten seinalea, bainan adimendu azkar baino azkarragoko batena; argirik gabeko karrik ez zuen amesten ahal, eta erdaraz finkatzen zuen erranez: « Le génie de la charité ne va pas sans le génie de l'intelligence. » Errech zitzaitan gero erakustea gure sainduak zoin lañoki zauden Jainkoari, gogoz eta bihotzez, fedeari eta graziari esker: « et ce double génie ne s'explique pas sans le mystère de la grâce! » Orduan Pascal ginuen aiphu edo Newman. Hots, ez zuen den-mendren etsaigorik erlisioneari buruz eta berak erraiten zuen: « Egun guziez ohoratzen dut Jesu-Kristo! » Nola zuen bada ohoratzen, ez dauku salhatu behinere; bainan ohore horren sari, Jainkoak azkenean bereganatu behar zuen ondarra.

Gerlatik landa, Etchepare jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari. Broussain Hazparne-ko eskualzale suharrak sustaturik, itzuli handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualherrian barna : gogo-bihotzak bethe zitzaizkon hango argiaz, hango lurrez, hango anaiez, eta _Eskualduna_-k ager-arazi zituen haren oharpen pollitak. Ordutik bethi hango berri jakin-nahia egon zen, izan zadin politika-berri, ala liburu-berri. Adichkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean.

Eskuara maite duten guziek bethitik amets handi bat ukan dute : gure mintzaire chaharraren zaintzerat eta joritzerat ar litaken biltzar erne bat ; hots, "Akademia" delako bat! Zalduby zenak, Inchauspe zenak eta bertze hainitzek horren galdea zuten XIX garren mendean, eta ordutik hunat ere, entzun dira asko dei eta agertu asko chede. Chedeaz bertzerik ukan dute zonbaitek : _Revue Internationale des Etudes Basques_ delakoan ikus ditake nola 1914-eko gerla-aintzinttoan « Cercles d'études » batzu egin zituzten Baionan, eskuararen barnago-danik ikhertzeko. Erran gabe doa Etchepare jauna ere barne zela. Bilkura horiek Akademia baten abiadura bazuten. Bainan abiadura horrek ez zuen segidarik ukan ; ez segurik uste zuten bezalakoa. Bidasoz haraindian, Azkue jaun apheza buru, Eskualzaindia sortu zen halere, hamabi lagunekilakoa : bederatzi hango, hiru hemengo. Etchepare jauna laguntzaile hartu zuten bakharrik, gure ustez zerbait gehichago egin zukeelarik, segur eta halere.

Bainan tira!.. Orobat hor egin zukeen lanak ez zion aizinik edo astirik utziko bertzalde egin duen lanarentzat. <u>Eskualtzaleen biltzarra</u> aspaldiko elgartasun bat da. Badauzka bildurik norbait diren jaun eskualdun gutiz gehienak. Urthekal hoinbertzeko bat emaiten dute diruzainaren moltsarat eskuararen alde baliatzeko, eta, elgarren sustagarri, bazkari bat ere egiten dute uda oroz. Bazkari horrek erran-arazi du asko gachtakeria ~~bai eta zirko zenbait~~. Mihi pochoin batzuek ez dutea biltzarra izengoititu: « bazkaltzaleen biltzarra »? Nork nahi zer nahi erranik ere, badakigu zer ongia egiten duen batasun horrek, dela haurren, dela aphez-gaien bihotzetan. Ez balitz hain itsusi bere buruaz mintzatzea, erran nezake gogotik zer diotan zor nihaurek, nola jaun hoiek berotu nuten eta phiztu gure mintzaire ederraren arthatzerat, eta zer eskerrak diozkatedan orori. Bainan bego bertze aldi batentzat! Dugun altcha bakharrik Etchepare jauna buru eman zutelarik, ez zela lo egon, bazterrak harrotu zituela, jende hainitz bildu zuela, eta Elissalde apheza lagun, abiadura berri bat eman ziola biltzarraren lanari. Geroztik Dassance jaunak ere aintzin-arazi du puskaz; bainan badakit ez dela den gutienik bekaiztuko, erraiten badut, behin baino gehiagotaz Etchepare adichkideari bermatu dela, haren argiez, lumaz eta laguntzaz baliatuz.

O zoin lakhet zuen Baiontako edo Donoztiririko buruzagien bilkura ttipietan! Denboraren buruan... iduri zait ikusten dudala oraino, zigarretaa erhien punttan, begiak erdi-hetsirik, erran guzieri beha, ichil-ichila egoki: Elissaldek bere ditchoez Oxobi-ri

